

1.a. erreminta. Irakasleak.

MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN

A) Bete ezazue erreminta talde txikian adosturiko emaitzekin. Adierazgarria iruditzen zaizuen guztia “komentario eta oharrak” atalean idatz ezazue.

BAIEZTAPENAK	Emakume-kopurua: ...				Gizon-kopurua: ...			
	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS	KONTRA	ADOS
1. Elkarbizitza berez ez da helburua, irakatsi eta ikasi egiten dela bermatzeko bide baizik.	1	2	3	4	1	2	3	4
2. Ikastetxearen antolakuntza, ikasgaien programazioak, metodologia harreman motak... gatazka desberdinak sortarazi ditzakete. Beraz, ez dugu pentsatu behar gatazka guztien kausa ikasleen edo irakasleen arazo pertsonalak direnik.	1	2	3	4	1	2	3	4
3. Gure pentsamenduek gure emozioak eta sentimenduak baldintzatzen dituzte eta horiek gure jokabidea markatzen dute. Hortaz, pentsamendu, sentimendu eta jardueraren arteko koherentzia funtsezkoa da norberaren nahiz ikastetxearen ongizaterako.	1	2	3	4	1	2	3	4
4. Ikastetxeko elkarbizitzan irakasleek euren lanari buruzko hausnarketa egiteko duten gaitasunak eragina du. Baita ikasleei interes-, gogo-, emozio-, sentimendu- eta ideiak adierazten lagunduko dieten metodologia berriekin esperimintatzeko dituzten gaitasunak ere.	1	2	3	4	1	2	3	4
5. Diziplina arazo guztiak, arautegi on batekin konpontzen dira.	1	2	3	4	1	2	3	4
6. Ikastetxeetan etengabe elkarbizitzari buruzko kezak izaten dira, baina ia inork ez dio gaiari behar bezala heltzen elkarbizitza kudeatzeko programa bat eginez.	1	2	3	4	1	2	3	4
7. Batzuetan, ikasleekin izaten ditugun gatazkak edo ikasleen artekoak, egoera pertsonalen ondorio izaten dira. Izan ere, sentitzen duten segurtasun falta, arreta edo afektu beharrari erantzun bat bilatzeko modu bat dira.	1	2	3	4	1	2	3	4
8. Ikastetxeko estamentu guztiek, eta batez ere ikasleek, benetan parte hartzeko bideak izateak, batetik, pertenezkia sentimendua sustatzen du, eta, bestetik, eskolako giroa eta elkarbizitza hobetzen laguntzen du.	1	2	3	4	1	2	3	4
9. Elkarbizitza positiboak, guztion artean (ikasleak, irakasleak, gurasoak eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonala) arau argi batzuk adostea eskatzen du. Autonomia, erantzukizuna eta hezkuntza-komunitatekideen aldaketarako eta hobetzeko gaitasuna sustatzen duten arauak.	1	2	3	4	1	2	3	4
10. Ondo ordenatuta dagoen gelan (edo ikastetxean), norberak garbi baldin badu zer egin behar duen eta nola, zer espero duten besteek berarengandik, normalki, ez da elkarbizitza arazorik izaten.	1	2	3	4	1	2	3	4
11. Aisialdirako espazioak, jantokiak, pasabideak, autobusak.. autoerregulatu egiten dira eta bertan ez da aldaketarik egin behar ikasketaren garapenean eraginik ez baitute.	1	2	3	4	1	2	3	4

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

.....

12. Indarkeria ikasi egiten da eta desikasi ere egin daiteke.	1	2	3	4	1	2	3	4
13. Elkarbizitza Plan on batean, gatazkak konpontzeko metodologia-proposamenak egiteko unean lehentasuna eman beharko zaie gatazkaren protagonisten emozioei eta elkarriketari; arrazoiak zeintzuk diren aztertu behar da.	1	2	3	4	1	2	3	4
14.	1	2	3	4	1	2	3	4
...								

B) Oinarritzotzat jotzen duzuen hiru gai adostu. Azpimarratu nahi duzuen ideia era positiboan eta guztiz argi gera dadin, esaldiak berridatzi.

1.

2.

3.

Komentario eta oharrak: